

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak dira enpresa batek egin behar dituen funtsezko jarduerak, bere negozio-ereduak funtziona dezan. Funtsezko elementuak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak: bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea. Gure proiektua funtziona dezan, ekoizpen eta garapen lan batzuk egin behar dira, dena ezin baino hobeto joan dadin. Horretarako, baliabide intelektualak eta giza baliabideak behar ditugu, gure aplikazioa ondo funtzionatzeko. Hori lortzeko, gai horretan espezialistak eta profesionalak diren pertsonak kontratatuko ditugu. Informatikako ezagutzak behar dira hau garatzeko, baita salmentarako abileziak, gero eta gehien saltzeko. Guk nahi duguna da, aplikazio hau merkaturatzeaz gain, balio etikoak eta onak zabaltzea. Balio hauei esker, bezeroei laguntzen diegu, badakigulako bezeroak guretzako ezinbestekoak direla eta haientzako ahalik eta hobekiena nahi dugu. Beste aldetik, finantza-baliabideak ere behar ditugu, hau da, aurrezkiak, hasieran aplikazioa garatu ahal izateko eta aurrera eraman ahal izateko.

Arazo batzuk sor daitezke, eta horiei irtenbide bat emateko eta konpontzeko, baliabideak behar ditugu. Horretarako, gure enpresan arazo mintegi bat dago, eta profesional horiek, zerbait gertatu baino lehen, ikertzen eta aztertzen dute, arazoa ekiditzeko. Ondorioz, arazo larri baten aurrean egotekotan, segurtasuna daukagu ez dela ezer gertatuko.

Azkenik, plataforma edo Sareko jarduerak ditugu, guztien eskura daudenak, gurekin kontaktuak jartzeko eta edozer galdetzeko. Gainera, aplikazioan dauden aktualizazioetaz ohartarazteko gure bezeroei, gure web ofizialean aurki dezakete dauden edo etorriko diren berriak.